

JANTOKIKO DIZIPLINA ARAUAK LH

HUTSEGITEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Zerbitzuaren garapen zuzena oztopatzen duen edozein ekintza hutsegitea da. Hutsegiteak hiru multzotan sailkatzen ditugu : arinak, larriak eta oso larriak.. hutsegite arinak hiruhilabeteko batean zenbatzen dira; hurrengo hiruhilabetekoaren hasieran zenbaketa zerotik hasten da. Hutsegite larriak eta oso larriak direnak kurtsoan zehar pilatzen dira.

FALTA ARINAK (hiruhilabetekoka)

- Kasurik ez egitea, gaizki erantzun edo sukaldeko eta jantokiko langileekiko begirune hutsegite arinak
- Ikaskideekiko begirune hutsegite arinak (irain arinak)
- Jantokira sartzean edo bertatik ateratzean korrika ibiltzea, elkar bultzatzea, edota oihukatzea
- Ez baimendutako objektuekin (mugikorak, mp4, kontsolak...) jantokira sartzea
- Lekuz aldatzea baimenik gabe
- Zuzenki ez jatea
- Ozenki hitz egitea, besteak molestatuz
- Ikastolako materiala, nahita edo gaizki erabiltzeagatik, apurtzea edo hondatzea
- Janariarekin jolastea, elkarri botatzea.
- Pertsonetikiko begirunearen kontrako edo pertsonen duintasun edota osasunean arin eragiten duen edozein jokabide

NEURRI ZUZENTZAILEAK (Hiruhilabetekoka)

- 5 hutsegite arin: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie
- 10 hutsegite arin: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokiko langileek, egindako hutsegitearen arabera, ondoko neurriren bat aukeratuko dute:

- Astebete batez bere taldetik bananduta jango du, mahai batean bera bakarrik.
- Hiru egunez atsedenaldirian jolasteko eskubidearen galera.
- 20 hutsegite arin (hutsegite larri bat): gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik egun batez kanporatuta.
- 30 hutsegite arin: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik 3 egunez kanporatuta.
- 40 hutsegite arin: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik astebete batez kanporatuta.
- Hutsegite arin bat gehiago eginez: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik hiruhilabeteko osoz (edo gelditzen denaz) kanporatuta

HUTSEGITE LARRIAK (Metatzen direnak)

- 20 hutsegite arinen metaketa
- Jantokiko edo sukaldeko langileei larri kasurik ez egitea
- Jantokitik baimenik gabe ateratzea
- Janaria lurrera edota beste ikaskideei nahita botatzea
- Ikaskideen arteko eraso fisikoak
- Pertsonetikiko begirunearen kontrako edo pertsonen duintasun edota osasunean larri eragiten duen edozein jokabide

NEURRI ZUZENTAZILEAK (Metatzen direnak)

- Hutsegite larri bat : gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik egun batez kanporatuta.
- 2 hutsegite larri: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik 3 egunez kanporatuta.
- 3 hutsegite larri: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik astebete batez kanporatuta.
- 4 hutsegite larri: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik hilabete batez (4 astebetetz) kanporatuta.
- 5 hutsegite larri: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik behin betikoz kanporatuta

HUTSEGITE OSO LARRIAK

- Jantokiaren ordutegian ikastolatik baimenik gabe ateratzea
- 4 hutsegite larrien metaketa
- Pertsonetikiko begirunearen kontrako edo pertsonen duintasun edota osasunean oso larri eragiten duen edozein jokabide (Bullying, behin eta berriz eraso edota iraindu...)

NEURRI ZUZENTZAILEAK

- Hutsegite oso larri bat: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik hilabete batez (4 astebetez) kanporatuta.
- 2 hutsegite oso larri: gurasoei idatziz jakinaraziko zaie eta jantokitik behin betikoz kanporatuta